# ENTREPRESER ZERBÜTXÜ EKARTE SAILA

# SECTEUR SERVICE AUX ENTREPRISES

# ENTREPRESER ZERBÜTXÜ EKARTE SAILA

« Entrepreser zerbütxü ekarte » sail hortan konta da honenbeste lan-mota kanpoko zerbütxü eskentzale batek entrepresari ekarten ahal deitzonak.

Lan-mota horik oro bi alor nausitan sailkatzen dira :

- **Aktibitate berezi, zientifiko eta teknikoak** : züzenbide, diharüzain aktibitateak, küdeantza, arkitektüra, kuüdeantza aholkü, programazione, teknologia aholkü eta ingenieritza, ikerka eta garatze, merkatü azterketa eta püblizitate, etab ;

- **Lantegi süstengü eta administrazio zerbütxüak**: tresna eta ebilgailü alokatze, arteko lana, segürtantsa, xahütarzüna, gütün eta batzarri, logistika, dei zentroak, etab.

Xiberoko indüstria poloari esker, zerbütxü desbardinak sortü dira : elektrizitate indüstriala, egitüra indüstriala, pieza moldatzea, tresnerien entretenioa , formakuntza.






1. irüdia : Xiberoko entrepreser zerbütxü ekarte sailean egitüra eta enplegü heinaren gora beherak

1999 eta 2010 artean, entrepreser zerbütxü ekarte saila azkarki emendatü da (entrepresen arteko salmenta sailean enplegüak % 83-az goratü dira) eta 2012tik 2016lat güti gorabehera ber heinean baratü da. 2015 eta 2016 artean haatik apaltze ttipi bat ikusten da 37 lanpostü galdü beitira.

2015ean INSEE-k dio, Xiberoan egitüren %18,5a entrepreser zerbütxü ekarte sailekoa dela (laborantxaz kanpo).



**Ütürria : Baiona-Eüskal Herriko Merkataritza eta Indüstria Ganbara**

# ENTREPRESER ZERBÜTXÜ EKARTE SAILA



**IKUSBIDEAK**

**Entrepresen arteko botin ezarte eta partekatzeak** garatü behar lirate, hala nola :

- entrepresabürüen alkartzearen bidez, lanbide partekatüen plantatzea, lantegi ttipi eta ertainentako langile trükaketa (idazkaritza, diharüzaintza, kalitatea,…) ;
- entrepresa batetik bestealat tresna eta material prestatzea. Adibidez, CCI-ak ACTIF plataforma abiarazi dü: kartografia interaktiboen bidez, libre diren baliabideak kontatzen eta edireiten dütü eta entrepresen arteko harremanak aisatzen dütü ;
- taldeka erosteko, karreiatzeko baliabideak, bulego partekatüen plantan ezartea, etab.

XIBEROKO LANTEGIER ZERBÜTXÜ BERRIEN PROPOSATZEKO, GAZTE ZONBAITEK HAIEN AKTIBITATEA SORTÜ DÜE : WEBGÜNE SORKUNTZA, EROSTE ZENTROAK, … XIBEROAN ORANO BESTE ZERBÜTXÜ HANITX ASMATZEN AHAL DIRA.



**LANBIDE ADIBIDEAK**

Informatika plantan etxekitze eta entretenitze teknikari, indüstriarako erospen egile, kontükari eta kontükari aditü, küdeantza begistazale, administrazioneko langile / bülegoko langile, küdeantza ardüradün, klientela zerbütxüko ardüradün, saleroska ardüradün, informatika kontsültari, abokatü, legelari, grafista, zaintzale, bazterren xahü etxekizale.



# SECTEUR SERVICE AUX ENTREPRISES

Le terme « service aux entreprises » est utilisé pour définir une gamme d'activités qui concernent, dans la plupart des cas, la fourniture de services par une entreprise à d'autres entreprises.

Les services aux entreprises regroupent une grande variété d'activités, classées en deux sections :
- les **activités spécialisées, scientifiques et techniques** : activités juridiques et comptables, gestion, architecture, conseil en management, logiciels, ingénierie et conseil en technologie, recherche et développement, publicité et études de marché, etc;
- les **services administratifs et de soutien aux entreprises** : location de véhicules et d'équipements, intérim, sécurité, propreté, accueil et courrier, logistique, centres d'appels, etc.

Le pôle industriel souletin a contribué à l'expansion de divers services : électricité industrielle, bâtiment industriel, usinage de pièces, maintenance des appareils, formations.






*Figure 1 : évolution du nombre d'établissements et d'emplois dans le secteur des services aux entreprises en Soule*

Entre 1999 et 2010, le secteur des services aux entreprises a fortement progressé (83 % d'augmentation pour le commerce inter-entreprises), puis le nombre d'emplois reste relativement stable de 2012 à 2016. Une légère baisse du nombre d'emplois est tout de même à noter entre 2015 et 2016 : - 37 emplois. Selon l'INSEE en 2015, le secteur des services aux entreprises représente 18.5 % des établissements (hors agriculture) en Soule.



**Source : Chambre de Commerce et d'Industrie Bayonne Pays Basque**

# SECTEUR SERVICE AUX ENTREPRISES



**PERSPECTIVES**

La **mutualisation inter-entreprises** semble être une piste à développer avec :
- les groupements d'employeurs permettant la mise en place d'emplois partagés, de prêts de salariés pour les petites et moyennes entreprises (secrétariat, comptabilité, qualité, ...) ;
- la mise à disposition d'outils ou matériaux d'une entreprise à l'autre. Par exemple, la CCI développe actuellement la plateforme ACTIF : à travers une cartographie interactive, la plateforme quantifie et géolocalise les ressources disponibles et facilite la mise en contact entre les entreprises ;
- la mise en place de dispositifs d'achats groupés, de transports mutualisés, de partage de bureaux, etc.

DES JEUNES ONT RÉCEMMENT CRÉÉ LEUR ACTIVITÉ EN SOULE POUR PROPOSER DES NOUVEAUX SERVICES AUX ENTREPRISES : CONCEPTION DE SITE WEB, CENTRALE D'ACHATS,... D'AUTRES SERVICES SONT ENCORE À IMAGINER ET DÉVELOPPER EN SOULE.



**EXEMPLES DE MÉTIERS**

Technicien de maintenance en informatique, acheteur industriel, comptable – expert-comptable, contrôleur de gestion, agent administratif / employé de bureau, responsable marketing, responsable service clients, responsable commercial, consultant informatique, avocat, juriste, graphiste, agent de sécurité, agent d'entretien.

